



**2017KO MARTXOAREN 28KO  
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko martxoaren hogeita zortzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman eta esaten du eguneko gai zerrendatik kanpo mozio bat aurkeztu dela osoko bilkura honetan tratatua izateko eskariarekin. Hau honela, Osoko Bilkuraren onarpenera jartzen da mozio honi presazko izaera aitortu eta tratatzea ala ez eta Osoko Bilkurak, aho batez, tratatzea erabakitzen du.

Alkateak esaten du azken puntu bezala tratatuko dela, galdera eta erreguen aurretik.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Jarraian bertaratutako onespenera aurkeztzen da 2017ko otsailaren 28an egindako bilkurako akta.

Hernandez zinegotziak (EH Bildu) esaten du beraien mozioa ez dela jasotzen aktan.

Idazkariak erantzuten dio mozio hori ez zela tratatu.

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du, galdera eta erreguetan, EH Bilduko zinegotziek alde egin zutela esaten dela eta bera bukaera arte gelditu zela.

Hauek esanda, gainontzean akta idatzita dagoen moduan onartzen da.


**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- 2016KO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.-**

Alkatearen aginduz idazkari-kontu hartzaileak 2016ko aurrekontuaren likidazioaren azalpena egiten du, likidazioaren datu esanguratsuenen azalpena eginez.



Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

#### IV.- ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.-

Gipuzkoako Foru Ogasunak Gipuzkoako udalei bidalitako zirkularrean adierazten denez, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera, uraren ziklo integrala eskeintzen duten udalek BEZ kobratu behar dute ur horniduragatik ez ezik baita ere saneamendua eta estolderiagatik ere.

Hau honela izanda, eta BEZ hori herritarrentzat lehengoaz gainera kostu bat izan ez dadin, kontuan izanda ura lehen ere BEZrekin kobratzen zela baina ez horrela estolderia, estolderia tasaren tarifa %10ean jeistea planteatzen da.

Gaia aztertu ondoren eta Ogasun Batzordearen proposamenez, osoko bilkurak, aho batez, estolderia tasaren tarifa %10ean jeistea onartzen du, erabilera eta kontagailu kalibre ezberdinen arabera bere espedientearen dagoen taulan jasotzen diren zenbatekoak onartzen direlarik.

#### V.- ARALAR PISTEN INGURUKO MOZIOA.-

Hernandez zinegotziak (EH Bildu) esaten du mozioa beraiek sartu dutela baina mozio hau Aralar Bizirik taldeak orain hilabete sartu zuela.

Mozioak honela dio:

"SARRERA

Orain 14 bat urte aztoratu gintuen eztabaida kalean jarri digute berriro. Enirio-Aralarko Mankomunitateak, Foru Aldundiak 2015-2019 aldirako egindako kudeaketa plana onartu baitu, besteak beste, Goroskintxu-Saltarri, Enirio-Doniturrieta, Ariñate-Igaratzara pistak egiteko eta Latosa, Pagabe, Pardeduts eta Zotaletara besoak ateratzeko. 2016an Intzesao-Goroskintxu pista egin du dagoeneko Mankomunitateak, inpaktu larriak eta konponezinak sortuz. 2003an berriz, bai Enirio-Aralarko mankomunitateak zein Foru Aldundiak atzera bota zuten pista proiektua, Aralar Natur Parkea babestearen alde.

Gipuzkoako Foru Aldundia da Aralar Natur Parkearen arduradun nagusia, eta bultzatzen dituen pista guzti hauek Aralar Natur Parkea eta Babes Bereziko Eremua babesten duten legediaren aurka doaz.

Aranzadi Zientzia Elkarteak, Aralarri buruz ezagutza zientifiko gehien duen prestigidun taldeak, natur parkean egitera doazen pista proiektuak sortuko dituen inpaktuak larriak eta atzeraezinak izango direla adierazi du Batzar Nagusietan. Irizpide horiek ez ditu aintzat hartu nahi Aldundiak, orain 14 urte pista proiektua atzera botaz hartu zituen bezala. Orduan, Legebiltzar osoak onartu zuen pista berriak eraikitzekeo plana guztiz desegokia zela Natur Parkearen helburuak betetzeko. Aranzadik, pista proiektua aurrera eramanez gero, abeltzaintzaren etorkizuna ez lukeela bermatuko eta Aralar Natur Parkean ondorio konponezinak sortuko lituzkeela adierazi zuen.

Hortaz, auzi honetan batzuen interesak bakarrik hartu dira kontuan, parkearen izaera



arriskuan jarriz eta epe luzera, artzaintza eta abeltzaintzarena ere bai, lurzoruaren higadura areagotuz. Ezin dira ezkutatu pisten eraikuntzak inguru naturalean eragiten dituen kalte eta inpaktuak. Batez ere Aralar bezalako mendietan, natura eta paisaia balio apartak izatearekin batera, oso hauskorrak gertatzen baitira, honelako obrek larriki kaltetzen dituztelarik.

Horrez gain, auzi honek Aralarko herrietan tentsio jasanezina sortu du eta hori desagerrazteko eta bizikidetzaren berreskuratzeko, ezinbestekoa da lehendabizi pista proiektua geldiaraztea, ondoren gaur egungo egoera osotasunean hartuta aztertzea, datuak publiko egitea eta teknikarien laguntzaz eta sektore ezberdinen artean (artzain, mendizale, naturazale, ekologista, ornitologo,...) Aralarko Natur Parkearen kudeaketa plana berrikustea, beti ere, parkearen arauak onartuz eta legeak betez.

Egoera honen aurrean, Aralar Bizirik Plataformak, Lazkaoko Udaleko Osoko Bilkuran honako hau onartzea proposatzen du:

#### MOZIOA:

Aralarko pisten inguruko gatazka konponbideak

- 1.- Saltarikoa, zein beste pista proiektu guztiak gelditzea.
- 2.- Enirio-Aralarko Mankomunitateak 2003an onartu zuen Ekintzen Egitamua berrikusi dezala, eman daitezkeen erabilerak naturaren babesaren menpean jarriz eta, onartzeko prozesuan, herritarren parte-hartzea eta eztabaidari bide emanez.
- 3.- Enirio-Aralar mendi publikoa izanik, Mankomunitatea erakunde irekia eta gardena izatea, informazioa zabalduz eta Enirio-Aralarren zainketan herritarrak parte hartzeko bideak ipiniz.
- 4.- Herri bakoitzak Mankomunitatean duen ordezkariak, Aralarren inguruko gai garrantzitsuetan gutxienez, Udal horietako plenoan eztabaidaturiko eta bozkaturiko erabakia eramango du Mankomunitateko batzarretara.

Lazkaoko Udalaren erabaki hauek Enirio-Aralarko mankomunitateari lehenbailehen jakinarazi eta erabaki honekin bat egiteko eskatzea, horretarako behar diren neurria hartuz.

Foru Aldundiko Ingurumen eta Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendariei akordio hauen berri ematea eta aintzat hartzeko eskatzea."

Altuna zinegotziak, landa lurreko zinegotzia eta Enirio Aralar Mankomunitatean udal honen ordezkaria denak, mozioan esaten direnei erantzunez, esaten du mozioan esaten dela transparentziarik ez dagoela, lanketarik ez dela egin, beraiekin ez direla egon, ... eta berak esan nahi duela 2015az geroztik, ordezkari kargua hartu zuenetik, lanketa egin dela eta beraiek parte hartu ez badute ez dela bere arazoa, lanketa egiten hasi zirela, eskari batzuek zeudela abeltzainek aldetik, eta eskari horiek aztertu direla eta hortik etorri dela plan hori. Esaten du baita ere Mankomunitateak egin duen lanketa horretan, haruntza joan den guztiarekin egon dela eta joan den guztiari entzun zaiola. Esaten du baita ere, herri mailan berak Aralarko gaia askotan landu duela, eta Imanol ere hor egon dela, 2016an hiru bilera egin zirela Aralarri buruz, bi ordenantzei buruz eta hirugarrena pisten



gaia landu zena, Lazkaomendin egin zen bilera batean, eta bertan Lazkaoko Udalaren posizionamendua azaldu zela, zein jarrera hartuko zuen mankomunitatearen abenduaren 20ko bozketan. Eta berak harrezkero han hartutako erabakiaren inguruan Lazkaoko EH Bilduren ordezkarien aldetik ez duela inongo komunikaziorik jaso. Esaten du baita ere abenduaren 20an mankomunitatean erabaki nahiko zail bat hartu zutela, eta erabakiak gatazka sortu duela edo batzuek gatazka sortu nahiean dabiltzala, baina erabaki hori mankomunitateko hamar herriren aldeko botoekin hartu zela eta beste herri bat abstenitu egin zela eta beste lau herri ez zirela eseri. Esaten du baita ere 10 herri horiek bi heren direla eta herri horiek %85a ordezkatzeko dutela eta berak Aralar Bizirik esango liokela %85ak onartzen duen proiektu batek errespetorik ez badu merezi ez dakiela zertarako egiten diren bozketak. Esaten du baita ere proiektu hori teknikoki aztertu ondoren onartu dela eta behar batzuei erantzuten diela, artzaintzak eta abelzaintzak XXI. mendean dituen beharrei erantzuten diela. Eta esaten du baita ere erabaki hau onartu nahi ez dutenak, erabaki hori hautsi nahiean dabiltzala, gaur udal honetara eta bihar batera eta bestera eramanez. Eta batzuek pista hauei jarri dieten autopista izenaren aurrean berak beste izen bat jarriko liekela eta hori izango litzateka txabolen irisgarritasun duin baterako azpi-egiturak.

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du ez dagoela ados Altuna zinegotziak esandakoekin. Esaten du landa lurreko batzordeak baino gehiago baserritarrekin egindako bilkura informatzaileak izan direla. Esaten du baita ere EH Bildu ez dela inoiz pisten aurka egon eta gai hau eramateko formatan egon dela aurka. Esaten du baita ere, egin den batzordeko bilera bakarra lehengo ostegunean arratsaldeko 7etan egindakoa izan dela. Esaten du baita ere eskatzen duten bakarra eseri eta hitz egitea dela, eta oraindik garaiz gaudela inplikatu guztiarekin bildu eta hitz egiteko.

Alkateak esaten du erabakiak hartu behar dituenak hartu behar dituela. Esaten du baita ere baietz, ohikoa dela alkateak berak mozio asko sartzea, mozioa gustatu ala ez, baina kasu honetan hainbat gauza zalantzan jartzeak izan direla arrazoi, berak mozio hau ez sartu izateko, eta mozioa sartu beharreko bidetik sartu denean ez dagoela arazorik tratatzeko. Esaten du baita ere, Mankomunitatean erabaki hau hartu duten ordezkariak bere elkartasuna adierazi nahi diela eta bukatzeko esaten du azaldu diren arrazoi guztiengatik moziolari ezezkoa emango diotela.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du alkateari dagokiola, herriaren ordezkaria den partetik, mozio hauek sartzea. Esaten du baita ere gaiaren inguruan abeltzain eta artzainekin hitz egin dela eta hor dagoela gakoa, ikuspegi mugatua dela.

Gaiaren inguruan zabal eztabaidatu ondoren, mozioa bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 boto (EH Bildu) eta aurkako 7 botoz (EAJ) mozioa ezeztea erabakitzen du.

#### VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du aurreko bilkuran gertatutakoaren inguruan eta amaieran esaten denaren inguruan hain zuzen ere, beraiek herria errespetatzen dutela eta horretarako ez zutela irudikatu baizik eta beraiek ere udalaren parte direla agerian jartzeko.




**LAZKAOKO  
UDALA**

Alkateak erantzuten dio esanez ez duela horretaz zalantzarik egingo baina nahi dena esan eta gero entzun nahi ez dena ez entzuteagatik aldegitia, errespeto falta iruditzen zaiola, eta gehitzen du informazioa inoiz eman den gehiena orain ematen dela eta inolako oztoporik ez dela jartzen.

**VII.- BILERAREN AMAIERA.-**

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hamabi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



**LAZKAOKO  
UDALA**

